


Roger Casement-en paradoxa

Aleksandar Mishevski



bestehitzak **drugizborovi**
||| | |||

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union




Roger Casement-en paradoxa

"Munduko bi istorio tragiko ezagutzen ditut, Irlandakoa eta Mazedoniakoa. Bi herriak gabetu eta torturatu egin dituzte".

Roger Casement

Iraultzaile irlandarra



Sarrera

2015eko urria, San Sebastian¹, edo, nire lagun euskaldunek esaten duten bezala, Donostia. Atlantikoko kostaldean dago hiri hura, kokapen ederrean, itsasoaren usainaz eta Mediterraneoko freskotasun eta bizitasun liluragarriez beteta. Nahiz eta udazken amaiera izan, badaude turistak leku guztietan, eta harrিতa nago ikusita zenbat surflari dauden; hiritik gertu dagoen hondartza batean hartzen dituzte olatuak. Gutxitutako hizkuntza eta literaturak aztergai dituzten zenbait erakunderen bileran, are eta harrituago nago ikusita norbaitek –nitaz gain, noski– badakiela mazedoniera gaur egun hitz egiten diren hamar hizkuntza zaharrenetako bat dela, euskararekin eta Irlandako gaelikoarekin batera. Geroxeago konturatu naiz euskara ia ez dela erabiltzen Donostian, eta hedabide gutxi batzuek baino ez dutela zaintzen. Bi urte geroago, Dublinen, jakin nuen gaelikoarekin gauza bera gertatzen dela, baina ez neurri berean. Telebistan erabiltzen da, eta badaude hizkuntza babesteko programa bereziak. Mazedonian ez dugu horrelako arazorik. Uste duzunean baduzula zerbait, ez duzu behar den bezala estimatzen, baina bertako hizkuntza ordainezina eta funtsezkoa da herrialde baterako. Bildu nituen ideia horiek gure arteko aldeak erakutsi zizkidaten, baita antzekotasun oso urriak ere. Argi dago denborak bere bidesaria kobratu duela.

¹ Gaztelaniaz jatorrizko bertsioan.

Aldeak eta antzekotasunak

Dublinen, Irlandan, 2017ko urrian.

Irlandako askatasunaren eta burujabetasunaren aldeko borrokan ibilitako gizon garrantzitsuenetako baten –Roger Casementen, hain zuzen– esaldi ospetsuenetako bat argialdi nagusi bihurtu zen niretzat ikerlan honetan. Erabakia zalantzarik izan gabe hartu nuen, gehienbat historian eta politikagintzan interes handia dudalako, baina zapalketa eta esklabotza jasan dituzten herrietan (Europan batez ere) dudan interesak ere bultzatu ninduen. Beste Hitzak egitasmoan egindako ikerketez gain, banekien gaur ere litekeena zela iraganetik etorritako iraultza-borroken arteko antzekotasunak egotea. Baina auskalo: beharbada, oker nabil. Beharbada, bai.

Nor zen Roger Casement? Zergatik esleitzen zaio Irlandako askatasuna bermatzearen meritua? Diarmuid aktore eta gidoilariak informazio gehiago eman zidan. Bitolan, bi hilabete eman zituen, eta pozik partekatu zuen nirekin Irlandako burujabetasunaren aldeko borrokaren ikono haren lanari eta nortasunari buruzko ezagutza guztia. Roger Dublinen jaio zen; aita protestantea zen eta ama, katolikoa; hezkuntza sendoa jaso zuen, eta horrek aukera eman zion kanpo-arazoetarako ministerioan lan egiteko eta kontsul britainiarra izateko. Horren aurretik, Kongon ikertu zuen Afrikan kolonia-botereek bertako biztanleria nola esplotatzen zuten. Ziurrenik, bertako biztanleriari egindako bidegabekeriak eta gaiztakeriak ikustea izan zen hasierako motibazioa monarkiari zerbitzua emateari uzteko, eta IRAn sartzeko; matxinatuei laguntza eman zien dirua eta armak biltzen. "Monarkiari traizioa egitea" leporatu zioten Casementi, eta horregatik kendu zioten bizitza. Erresuma Batuko soldaduek harrapatu zuten, eta heriotza-zigorra ezarri, eta urkatu egin zuten.

Gizon garaia eta ederra zen, ibilera aristokratikokoa, poeta eta diplomatikoa, ausarta eta zorrotza; haren itxurak Todor Alexandrov ekartzen dit burura: VMROko (Mazedonia Barneko Erakunde Iraultzailea) buruzagirik arrakastatsuen eta erakunde horren mitorik handiena.

Elkarren antza zuten: biak polemikez inguratuta bizi izan ziren, eta biek, gaur ere, jakinmina sorrarazten dute. Roger homosexuala zen, eta, garai horretan, noski, hori ez zen ezaugarri onuragarria; XX. mendeko hasierako iraultzaile batentzat, behintzat, ez.

Exekuzioaren ondoren, eta haren *Black Diaries ('Egunkari beltzak')* argitaratu eta gero (non harrapakari homosexual promiskuo gisa azaltzen zen), kritikak jaso zituen bere sexualitatearengatik. Noski, haren iraultza-ekintzen gainean itzal iluna hedatzea izan zen asmoa, baita Irlandako Errepublika sortzeko borrokan izan zuen merituen gainean ere. Hala ere, gaur egun, Roger herrialdeko heroietako bat da Irlandako Errepublikan, eta ez han bakarrik, baita aginpide britainiarraren menpe geratu zen Irlandako eremuan ere, Ipar Irlandan, hain zuzen. Deigarria da duela oso gutxi arte Roger Casementi eskainitako horma-irudi eta graffiti ugari zeudela Belfast hiri banatuan. Parke bati eman zioten haren izena. Horma-irudi erraldoiek erakusten dute irlandarrek nolako atxikimendua duten Palestinarekiko eta haren burujabetasunaren aldeko borrokarekiko. Kataluniako burujabetasunaren aldeko mezuak ere badaude, modu ederrean margotuak, eta Abdullah Ocalan errebolitari kurduen buruzagia ere (terrorismoarengatik kondenatua) aipatu behar dugu.

Europar Batasuna terrorismoarengatik kondenatuekiko elkartasun publikoarekin hain tolerantzia da, ala Belfast horretan salbuespen bakarra da? Oasi al da politikagintza erradikalerako (muturreko ezkertiarrengandik hasi eta Sionismoaren aldekoenganaino)? Bai, gatazkan dauden bi komunitateak banatzen dituen harresiaren beste aldean, Erresuma Batuko banderaren ondoan, Israelgoa jarri zuten harrotasunez duela asko. Itxurakeria ala adierazpen-askatasuna al da? Batasun honetan, non gorroto-diskurtsoaz, eta giza eskubideaz eta askatasunaz etengabe hitz egiten den. Batez ere, Balkanetako Hirugarren Munduko herrialde torturatuei dagokienez, hego-mendebaldeko Europa deritzon horri dagokionez. Ezin nuen jakin Ipar Irlandako protestanteei edo unionistei (gutxiatik biztanleriaren gehiengoa) axola zaizkien ala ez herrialde haiek. Baina badakit irlandarrek Titanic eraiki zutela eta Belfastetik itsasoratu zela, eta, gaur egun, turista-ikuskizun garrantzitsuenetako bat dela.

Museoak zoritxarreko bidaia izan zuen itsasontziaren forma dauka; izozmendi batekin egin zuen talka, eta istripu horrek inoizko biktima-kopuru eta kalte material handienak eragin zituen. Beharbada, hori gerta dakioke Europar Batasunari ere. Batez ere, Brexitaren ondoren. Batasunaren kideei ezartzen zaizkien estandar bikoitzak ikusita, desegiten ez bada, eraldatzea saihestezina da. Baina hori boto-emaileek erabakiko dute modu demokratikoan Europako Batasuneko legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetan.

Roger Casementen nortasunari, eta, batez ere, lanari buruzko iruzkin positiboek gain, Dublinen, aukera izan nuen haren aurkako iritziak zituen jendea ezagutzeko.

Kritikarik larrienak ezkertiar eta komunistengandik entzun nituen: ezin zioten barkatu pertsona ezegokiek fidatu izana, askatzearen ondoren errepublika berriari boterea gaizki erabili baitzuten, alegia, Eliza Katolikoari botere gehiegi eman baitzioten gizarte osoaren gainean, iraultzaren giza alderdian arreta jarri gabe, langile-klasearen bizitza-baldintza duinen aldeko borroka kontuan hartu gabe.

Hori niretzat harrigarria baino harrigarriagoa izan zen. Iritzi berarekin, Ernesto Che Guevararen zaleak dira, munduan zehar beste hainbat bezala. Alferrik azaldu nien Chek ehunka presoren fusilamenduak agindu zituela, bere burkide batzuen barne, eta, Casamentek, berriz, ez zuela halakorik egin. Baina ezin nintzen isildu: justiziarikiko dudak maitasunak ez zidan isilik geratzen uzten, eta ezin nuen onartu jende zapalduaren askatasunaren alde borrokatzeko bere lanbidea eta bizimodu diplomatiko lasaia sakrifikatu zituen norbaiti hura leporatzea. Saiatu nintzen Josip Broz Tito Jugoslaviako buruzagi legendarioa aipatzen; biziarteko lehendakaria izan zen, eta adibide garbia zen erakusteko oparotasuna ziurtatu daitekeela, baina askatasun gutxi emanek eta demokraziarik gabe. Nola azal niezaiekeen mundua ez dela zuria ala beltza? Baina, tamalez, konturatu naiz fanatikoentzat ñabardurak ikusezinak direla.

Horrek guztiak burura ekarri zizkidan Mazedoniako burujabetasunaren alde borrokatu ziren –eta oraindik ere horretan diharduten– buruzagiei eta heroiei buruzko liskarra eta polemika; baita VMRO iraultza-erakundeari (urteetan zehar askotan aldatu du izena) buruzkoak ere.

Ez dago zalantzarik haren momenturik goiena Lehen Mundu Gerra ondoren gertatu zela, Todor Alexandrov buruzagia zela. Gizon horren gaineko iritzi ezberdinak daude gaur egun: haren ekintzak, ideologia, eta, noski, pairatu zuen magnizidio misteriozua; oraindik ere ez dakigu nor erail zuen, baina pentsa dezakegu hil zutela Alexandrov askorentzat problematikoa zelako.

Pertsona askok desagerrarazi nahi zuten: Sofiako errege-gortea, Bulgariako aurkari politikoak, baita Moskuko III. Internazionala ere, eta, noski, erakundearen buruzagitza nahi zutenak. Zorionez, gaur egun, VMROko buruzagi legendarioaren oroigarri bat dago Mazedonian, baita haren izena duen etorbide bat ere, eta, ondoko herrialdean, Bulgarian, ohore guztiak aspaldi jaso ditu, handik lan egiten baitzuen erakundeak. Casement Lehenengo Mundu Gerran atxilotu zuten, Alemaniatik etorri zenean.

Bide batez, VMRO ere Alemaniako aliatua izan zen Lehen Mundu Gerran, eta, horri esker, alemaniarrek mazedoniarrei agindu zieten Mazedonian esklabotasunean bizi ziren lurralde guztiak batuko zituztela.

XXI. mendean, aurreiritzirik gabeko edozeinek ulertuko luke zer arrazoi izan zituen Casementek lehentxeago bere herrialdea –Erresuma Batuaren– zenaren etsaiekin elkarlanean aritzeko. Eta gainerako guztiek esango lukete traizioa egin zuela. Zoritxarrez, gaur egun ez dago adostasuna lortzerik, ezta egia partekatu erabatekorik ere, batez ere European, neoliberalen eta muturreko nazionalisten artean banatuta baitago. Europar Batasuna sortu zenez geroztik, politikarien eta herritarren iritziak ez dira inoiz orain bezain banatuta egon, ez da inoiz hain desadostasun handia egon.

1916a arte, IRAko boluntarioei Pazko matxinadan erabiltzeko armez hornitzea izan zen Roger Casementen meriturik handiena, eta, horrekin batera, Estatu Batuetan barrena askatasun-mugimenduentzat dirua lortzeko sortu zuen giroa. Film-gidoi bat idatziko banu, eszena bat Estatu Batuetan asmatuko nuke; han, Roger Casementek mazedoniar diasporako ordezkari batzuk ezagutuko zituen, orduko Mazedoniako Erakunde Abertzalekoak (MPO), eta horiengandik jasoko zuen bi herrialdeen patu tragiko eta antzekoen gaineko informazioa. Beharbada, Marseillan ezagutu zituen; hala idatzi zuen historialari amateur batek, eta hala aipatzeko eskatu zidan.

Bai, Marseillan, Frantzian, 1934an, XX. mendeko magnizidiorik ospetsuenetako bat gauzatu zuen Velichko Georgiev-Kerin VMROko hiltzaileak; Vlado Chernozemski ere deitzen zioten, ezizen hori aukeratu baitzuen Mazedoniako estatu aske, burujabe eta batuaren aldeko borrokan ibiltzeko.

Biktimak Aleksandar Karajordjevic Serbiako erregea eta Louis Barth Frantziako kanpo-arazoetarako ministroa izan ziren. Gaur egun, Vlado Chernozemski heroia da batzuentzat, eta, beste batzuentzat, odol hotzeko hiltzailea. Zurrumurruak dio Casementek bildutako diruaren zati bat VMROri eman ziola Mazedoniako askapenaren alde aritzeko, baina ez dut horren inguruko probarik aurkitu.

Mazedoniar paradoxa

Mazedoniako paradoxa zera da: Jugoslavia ohiko gerrak hasi zirenean, 1991an, bake-oasizat hartzen zen, baina, orain, barruko aztoramenak eta etnien arteko liskarrek apurtu dute burujabetasunaren erabilera aske eredugarria hori.

Askoren iritziz, Greziak burujabetasunaren aldarrikapena oztopatzea da Mazedoniako arazorik handiena, eta horrek Europako eta Atlantikoko aliantzetan sartzea moteldu du. Liskarrik handiena Mazedonia izenari buruzkoa da. Greziak bere aliatuei sinetsarazi zien izena irredentista dela, alegia, Greziako lurraldeen gaineko aldarrikapena dakarrela: Balkanetako Gerren eta 1913ko Bukaresteko Hitzarmenaren ondoren bere aginpidean zuen zonaldea; hitzarmen hori, hain zuzen, gerran aritu ziren herrialde guztiek sinatu zuten, Mazedoniarrek berek izan ezik.

Gainera, greziarrek uste dute Titok asmatu zuela mazedoniar herrialdea 1944an, hala, Jugoslaviak haren lurraldeak aldarrika zitzaizkion batez ere Tesalonika eta itsasorako irteera.

Mazedoniarrentzat, izena herrialde-identitate kontua da, eta inork ez lieke kendu behar. Ondoko herrialdeekiko arazoak erantsiz gero, zailtasun gehiago agertzen dira nahasketan. Bulgariak ukatzen du mazedoniar hizkuntza eta herrialdea badirela. Serbiak ere ez du Mazedoniako Eliza Ortodoxoaren burujabetasuna zilegitzat jotzen, 1967an sortu zenean zuzenbide kanonikoa hautsi zela argudiatuz, nahiz eta ordurako mende erdia baino gehiago bazeraman. 2001eko gatazka militarrean ikusi genuen albaniarrek nolako nahi irredentistak zituzten Albania Handia sortzeko

Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundearen lana Serbiako bonbardaketan.

Noski, Europar Batasunak eta Estatu Batuak dute Mazedoniako egoera zailaren erantzukizun zuzena. Mekanismo guztiak eskura izan arren, ez zioten Greziari eragotzi bizilaguna Europako eta Atlantikoko erakundeetan sartzeko ahaleginak oztopa zitzan.

Eta Greziako krisialdi ekonomikoa gertatu zenean, posible izan zen Atenaseko gobernuari presioa egitea, berek asmatutako arazo irrazionala bertan behera utz zezaten. Laguntza emateari uko egin izanak egiazko zigorra izan zen Mazedoniarentzat, nahiz eta, 1999an, Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundearekin lankidetzan aritu zen Serbiako bonbardaketan; momentu berean, Mazedoniak Kosovotik zetozen ehunka mila iheslariri harrera egin zien, eta, horren truke, hitz politikak baino ez zuen jaso, zapladak bizkarrean eta Europar Batasunean laster sartzeko itzaropen faltsuak.

Europar Batasunaren hipokresiaren eta, batez ere, estandar bikoitzaren une gorena gatazka militar batean iritsi zen, Lord George Robertson Erresuma Batuko kanpo-arazoetarako ministroak egun batetik bestera erabaki zuenean UCK (Kosovoko Askapen Gudarostea) Albaniako erakunde paramilitarra ez zela terrorista, giza eskubideen defendatzailea baizik, nahiz eta erakundeak bost argitalpenetan esan Mazedoniako lurraldeak konkistatzeko eta Albania Handia sortzeko borrokan ari zela. Zalantzarik gabe, politika hipokrita horren defendatzaile eta babesle handienak Ameriketako Estatu Batuetako Estatu Sailean zeuden, edo Washingtingo Pentagonoan, baina ez ditzagun ahazt Bruselako Europar Batasunako burokratak.

Gaurko egoera Mazedonian.

Bitolan, 2018an

Mazedoniaren eta Greziaren arteko Prespa-ko hitzarmena Greziako eta Mazedoniako kanpo-arazoetarako ministroek sinatu zuten, bi estatuen lehendakariak sinatu beharrean, konstituzioak agintzen zuen bezala. Historia modernoaren lehenengo aurrekaria Europar Batasunaren babespean ezarri zen, mugako Nivitsaon Prespa Aintzira herrixkan. Gertatutakoak burutan genuena baieztatu zuen –ez dakit seguru beste norbait ohartu ote den–, eta aurreko adierazgarriak ere baieztatu zituen: gurean eta Europan, korrante nagusiko politikariak, intelektualek eta giza eskubideen ekintzaileak iritzi berak dituzte. Inork ez du ezer esaten norbaiten identitaterako eta erabakitzeo eskubideei buruz, ezta oinarrizko giza eskubide horiek bortizkeriaz eta xantaiaz ukatzeari buruz ere. Baina kontua ez da bakarrik estatuari izen berria ematea 'Ipar' hitza erantsiz, baizik eta herrialde osoaren izena duten erakundeekin ere gauza bera gertatu dela. Ez ginateke neurritz kanpo ariko esango bagenu mazedoniarren kontrako beste genozidio bat dela. Aurrekoa Bigarren Mundu Gerraren ondoren gertatu zen, 1945etik 1949ra arteko Greziako gerra zibilean, non, partisoen porrotaren ondoren, alde galtzailean ibilitako milioi erdi pertsona inguru bota zituzten estatutik. Gehienak mazedoniarrek ziren, eta alde irabazleak bonbardaketari britainiar eta amerikarren laguntza erabatekoa jaso izan zuen; horiek Mazedoniako Egeoaren inguruko mendiak kiskali egin zituzten. Izan ere, hor erabili ziren lehenengo aldiaz napalm-lehergailu ankerrak, Vietnamen baino askoz lehenago; baina historiaren pasarte hori ezezaguna da edo ahaztuta dago gaurko Europa demokratikoan. Greziako eta Bulgariako hitzarmenak alderatuz gero, bigarrena kaltegarriagoa da Mazedoniako identitate nazionalerako. Lehenengo bizilagunarekin (Grezia), gure identitateari uko egin genion; bigarrenarekin (Bulgaria), gure historia aldatzea onartu genuen, eta, batez ere, Bulgariako okupazioa. Halako batean, jakingo dugu Bigarren Mundu Gerran ez zela okupaziorik izan, ezta faxistarik ere; eta, apika, NOBen (Mazedoniako herri-askapenerako gudarosteko partiso mazedoniarrek) borroka osoa Ipar Mazedoniako historia-liburu berrietatik desagertuko da.

Erreferenduma demokrasiaren tontor gisa

Estatu normal guztietan, herriak erreferendumetan hartzen ditu funtsezko erabakiak. Ainara Maia euskal poetak honela azaldu zidan hori:

"Zuek zorte handia duzue: erreferenduma izan duzue estatuaren izen berria erabakitzeko. Euskal Herrian, aldiz, ez dugu horri buruz iritzia emateko eskubiderik."

"Gure demokrazia aurreratuagoa da", erantzun nion ironiaz, eta, testuinguru berean, Mazedoniako poliziak manifestatzaileekiko duen tolerantzia aipatu nion, Kataluniako burujabetasun-erreferendumean Espainiako poliziarenarekin alderatuta. Elkarrizketa horretan, Jan frisiar idazlea aipatu behar izan nion. Askok uste dute erreferenduma positiboa izan dela, baina beste askok aurkako iritzia agertuko dute ziurrenik. Esan behar izan nion bere ohoreari eta kontzientziari eusten dien edonork ez duela negoziatuko bere identitateari buruz, eta ez du gizateriaren historian aurrekaririk ez duen hitzarmen bat ontzat hartuko. Erantsi nuen erreferendumak zenbait hutsune dituela, eta kontsulta-erreferenduma dela, beraz, emaitzak ez dira baliagarriak izango. Kontrakoa sinetsarazten saiatu zen, baina alferrik, noski. Baieztapen hori geroxeago iritsi zen ehuneko 30ek hitzarmenaren alde bozkatu zuenean, eta gure lehendakari europazale artetsuak nire iritzia baieztatu zuenean: herriaren iritzia baino ez zuen entzun nahi, eta azken erabakia legebiltzarrak hartuko du. Segur aski, haren arabera, herritarrak behe-mailako izakiak dira, ez dakite zer komeni zaien, eta erabakiak hautatutako gobernatzaileek hartu behar dituzte. Geroagoko solasaldi lasai batean, Janek aipatu zidan bere izena Jan Matt dela; oker nembilen uste nuenean nahikoa zela 'Jan' esatearekin. Identitatea garrantzitsua da, norberarena izan nahiz herri oso batena izan. Espero dut hark puntu hau ondo ulertzea, eta besteek –ongi ezagutzen duten norbait edo zerbait epaitu baino lehen lerro hauek irakurriko dituztenek–ere bai.

Epilogo

Kontratuaren ezarpena konstituzioa aldatzeko prozedura abian jartzearekin batera hasi zen: legeen, arau zibilizatuen eta onura demokratikoen hauste bortitza gertatu zen. Legebiltzarkide batzuk erosiz, askori xantaia eginez eta batzuk atxilotu ondoren bahituz lortu zuten legebiltzarkideen bi herenak –80k, alegia– konstituzioa aldatzearen aldeko botoak ematea. Eta hori guztia gure onuraren eta ongizatearen alde egin zen, noski, 28 urtez irrikatu baikenuen. Eta Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeko kidea izateak epe luzerako bakea ekarriko du? Bai, hori argudioetako handienetako bat da, Iraken eta Afganistanen izan ziren bakea lortzeko gerretan bezala. Soldadu mazedoniarrek parte hartu zuten Estatu Batuen koalizioan, Greziakoek eta Bulgariakoek ez bezala: nahiz eta Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeko kideak izan, okupatze-misioan parte hartzeari uko egin baitzioten, bakea lortzekoa izan arren. Estandar bikoitzari buruz hausnar dezakegu, baina, aurrekariekin ez nahasteko, hipokresia hirukoitza edo askotarikoa da demokrazia terminoari dagokionez, baina baita giza onurei eta beharrei dagokienez ere, gure sistema edo gizarte-mota dena dela.

Gaur egungo Europako zuzentasun politikoak nola sailkatuko lituzke Casement eta Alexandrov? Askatasunaren, demokraziaren eta justiziaren defendatzailetzat hartuko lituzke, ala terroristatzat? Rogerrek, ziurrenik, inguruabar aringarriak izango lituzke homosexuala izateagatik, baina, egia esan, ez dut uste Todor Bruselako burokraten gustukoa litzatekeenik. Burokrata 'aurrerakoiek' –guztion izenean erabakiak hartzen dituztenek, alegia– ez lituzkete haren ezaugarriak gustuko izango. Apartheid terminoa erabiltzen da gutxiengoak gehienek aurka bereizkeria gauzatzen duenean. Ziurrenik, herrialde batean hasi eta beste herrialde batean bukatzen den agiri bakanetako bat izango da hitzarmena, eta, Mazedonia eguzkiagatik eta eguraldi eta udaldi beroengatik ezaguna denez, ez da inoiz Iparra izango; mazedoniarrentzat ez, behintzat, ezta munduan zehar justiziazalea den jendearentzat ere.

Alexander Mishevski